

ikastarONline:

Moodle-ren bidez online ikastaroak sortzeko ibilbidea.

- Barne-arautegia -

1. MATRIKULA

- Izena emateko epea 2022ko irailaren 5ean zabalduko da.
- Ibilbide osoan edo moduluka izena emateko aukera egongo da.
- Izen-ematea modulua hasi baino astebete lehenago itxiko da.

Prezioak

- Modulu bakoitzaren prezioa orokorra izango da:
 - 1. eta 2. moduluak: 165,00 €
 - 3. eta 4. moduluak: 195,00 €
- UEUren ohiko beherapenak (prezio orokorrari aplikatzen zaizkio):
 - Ikasle eta langabetuek (agiriak aurkeztu behar dira) % 10eko beherapena izango dute.
 - UEUko bazkideek % 25eko beherapena izango dute.

Beherapen metagarriak

- Ikasle eta bazkideen deskontuak automatikoki aplikatuko dira, webgunetik izena ematean.
- Moduluen beherapenak metatzeko sistema:
 - Bigarren (hots, hurrengo edo beste) moduluan izena ematean % 5eko deskontua aplikatuko da, hirugarren bat eginez gero % 10, eta horrela deskontuak gehitzen joango dira.
 - Deskontu hau moduluak amaitu (eta gainditu) ostean aplikatuko dira eta deskontuaren zenbatekoa kalkulatu eta itzuli egingo da.

>>> Orokorrean, [UEUren matrikulazio-araudi orokorrean](#) jasotako irizpideei jarraituko zaie.

2. IBILBIDEA nork bere ezagutzetara egokitzeko aukerak

1. **Ibilbide estandarra:** hasieratik amaierara arteko modulu guztiak hurrenez hurren egitea.

2. Norberaren aurre-ezagutzen araberako ibilbidea:

- Lehenengo eta bigarren moduluak egin gabe, hirugarrenean hasteko modua dago, edo zuzenean bigarreanean hasteko.
 - Betiere, hirugarren eta laugarren moduluak hurrenkeran egitea derrigorrezkoa izango da.
- Non hasi erabaki ahal izateko [autoebaluazio-galdetegia](#) eskuragai egongo da.
 - **Oharra: galdetegi hau orientagarria da, norberaren erabakia da zer modulutan izena eman.**
 - Galdetegian sartzeko "Sartu bisitari gisa" klikatu behar da.

Orokorrean:

- Norberak ibilbidea zer modulutatik hasten duen erabaki ondoren, maila horretatik aurrera **moduluak hurrenkeran** egin beharko dira.
- Modulu batetik bestera igarotzeko, aurrekoa gaindituta izan beharko da.

3. EBALUAZIOA

Ikastaro honen ebaluazioa jarraitua eta konpetentzietan oinarriturikoa izango da, eta honen xedea etengabeko hobekuntza da. Ikasleen parte-hartzea, burututako jarduerak eta amaierako azken produktua ebaluatuko dira, eta norberak bere ikasprozesuaz egindako balorazioak ere lekua hartuko du. Zehazki, honako aspektuak hartuko dira kontuan:

- Jarduerak sasoiz eta ondo egitea.
- Ikasketa-prozesuaren jarraipena eta horri buruzko hausnarketa.
- Komunikazio-jardueretan parte hartzea eta egindako ekarpenak.
- Ikastaro-amaieran burututako proiektua.
- Autoebaluazioa.

Ikastaroa gainditzeko puntuazioa eta baldintzak Ikasgela Birtualean ikusgai egongo dira, modulu bakoitzaren ebaluazio-atalean.

Ez gaindituak

Ikasle batek ez badu modulua gainditzen, beste behin berriz egiteko aukera izango du, baldintza hauetan:

- Modulu horren hurrengo saioan izena eman eta matrikularen erdia ordaindu beharko du.
- Modulu osoa gainditu beharko du.

Erreklamazioak

- Notak argitaratu eta **3 eguneko epean**, ikasleak erreklamazioa jar dezake.
 - Zuzenean irakasleari idatzi beharko dio Ikasgela Birtualetik eta erantzuna astebetara emango da.
- Irakaslearen erantzunarekin ados egongo ez balitz, Batzorde Akademikoari erreklamatzeko aukera egongo litzateke. kontaktu hau idazkaritzaren bidez egingo da.

4. AURREZ AURREKO SAIOAK

- Modulu bakoitzak bi aurrez aurreko saio izango ditu, bata hasieran eta bestea amaieran.
 - Saio guztiak Eibarren emango dira, Markeskoa jauregian (Otaola hiribidea 1, 20600 Eibar).
- Hasierako saioa, **hautazkoa** izango da. Orduetgia: 17:30-19:30
- Amaierako saioa eta proiektuaren aurkezpena **derrigorrezkoa** izango da ikastaroa gainditzeko. Orduetgia: 17:30-20:30.
 - Azken saio horretara ezin etorriak ezinbesteko kausa baten ondorio izan beharko du eta agiri baten bidez justifikatu beharko da.

5. IKASGELA BIRTUALERA SARRERA

- Ikastaroa Moodle plataformaren bidez emango da, UEUren Ikasgela Birtualean: <https://ikastaronline.ueu.eus/>
- Behin izena eman eta ordainketa egina dagoela ziurtatu ostean, **ikasgelan sartzeko argibideak eta pasahitzak posta elektronikoz bidaliko** dira, modulua hasi baino 2 egun lehenago.
- Ikasgela Birtualean egongo dira modulu bakoitzari buruzko argibide eta jarraibideak.

6. ZIURTAGIRIA ETA HOMOLOGAZIOA

- UEUk modulu bakoitza arrakastaz egindakoan, ikasleari aprobetxamendu-agiria luzatuko dio.
 - Ebaluazio eta gaitzeko irizpideak modulu bakoitzean zehaztuko dira.
- Modulu guztiak arrakastaz egindakoan eta proiektua gaitutakoan, **UEUk aditu-agiria emango dio online ikastaroak sortzeko gaitasuna ziurtatzen duenari.**
- **Homologazioa:**
 - Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean eguneratze-ikastaro moduan homologatzeko eskaera bideratu da. Erantzunaren zain.